

HERNANIK kronika

2003 urtea
Maiatzak 24
Larunbatea
Alea: 779
www.kronika.net


Txalaparta erromeria gaur Tilosetan

■ Txalaparta saio libreak egingo dira arratsaldean ■ Afalondoan, Euskal Herri osoko txalaparta taldeen jaialdia izango da, Hernaniko Ttakun Ttan Ttakun taldeak antolatutako 17garren Txalaparta Festan.

GAUR iluntzean eta gauean egingo dira 17garren Txalaparta Festako ekitaldi nagusiak. *Ttakun Ttan Ttakun* taldeak urtero bezala txalaparta doinuz girotuko ditu Tilos inguruak. Arratsaldeko 18:00etik aurrera, txalaparta saio libreak izango dira eta horrekin batera hor izango dira Hernani Musika Eskolako Albokari, txistulari, Trikitilari eta dultzaina joleak ere. Horretaz gain, urtero bezala *txalaparta merkatu txikia* ere jarriko dute, grabaketa, video, liburu eta bestelako materialarekin.

Gaueko 21:00etan, berriz, herri afaria egingo da, Tilosetan eta ondoren txalaparta jaialdia. Txalaparta zaleek aukera ederra izango dute probintzia gehienetik etorriko taldeak eta herriko *Ttakun Ttan Ttakun* bera entzun eta gozatzeko. Bertsolariek emango diote hasiera ekitaldiari eta gero Zuaznabar eta Goikoetxea txalapartari familiak txalapartarien txanda izango da lehenbizi.

Arabarrak arituko dira gero: Gasteizko Kolpez Kolpe txalaparta taldea eta Burrunba perkusio taldea. Arabaren ondoren, Ziburuko Txalaparta Eskolak eskaini-



Joxanton Artze txalapartari eta poeta Biterin, Jexux Artze anai zenaren oriomenezko ekitaldian.

ko du emanaldia eta Uharteko Zurgune taldeak gero. Sestaotik Zugarramurdi taldea etorriko da eta azken aurreko taldea, Hernaniarren aurretik, Kirikoketa izango da, Jexux Artze txalapartari haundi ibili zen taldea.

Euria bada, ekitaldi guztiek Elizatxo Ikastolan.

Jexux Artzeren oriomenez eta omenez

Jexux Artze txalapartari zenak leku berezia izan du Txalaparta Festan. Aurtengo edizioa txalapartari aro berri bat ekarri zionaren oriomenez eta omenez egin da. Hori dela eta, ostegunean Joxanton Artze txalapartari eta

poeta izan zen Biterin, *Ibarrean zeharka-meharka, mendian gora-behera* hitzaldiemanaldiarekin.

Atzo ere izan ziren ekitaldiak Txalaparta Festaren barruan. Arratsaldean Aztarnak kolektiboak egin zuen emanaldia Biterin, eta gauean *Txalaparta party aparta*. □



Bizente-Rekalde mus txapeldunak, eta Pavon I-Pavon II, txapeldun ordeak.

Bizente-Rekalde txapeldun eta Pavon I-Pavon II bigarren, Gure-Txokoko mus txapelketan

GURE Txoko Elkarteko mus txapelketa jokatu da eta Bizente-Rekalde parejak atera du txapela. Bigarren postuan Pavon I-Pavon II gelditu dira, hirugarren Bengoetxea-Zaldua, eta laugarren Patxi-Jandro. Aurren-bigarrenak soziedade arteko txapelketa jokatuko dute. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete laguntzaileei: Nogales Zeramikak, Euskadiko Kutxa, Bake Kafeak, Portalondo Estankoak, Goros, Redondo Iturgintza eta Bachiller Ardoak. □

Antziola-Motor
Salmenta eta tailer zerbitzua

ford Tourneo Connect

Gogortasunaren forma berria

Antziola auzoa 12 - Hernani - Tel.: 943 55 57 72
Ordutegia: astean zehar 9-13 eta 16-20 - Larunbatean 10-13

OIALUME BILTOKIA

Igande eta jaiegunetan dantzaaldia, 19,30etatik

Bihar: TRAKETS eta DJ Koldo

OIALUME BILTOKIA

Oialume auzoa 943 55 29 38

Telemar
Itxastele, S.L.

"Plan renove" 89 eurotik.

Aldatu zure Activa 89 eurotik aurrera.

Telemar Itxastele - Elkano kalea 13 - Tel.: 943 55 33 99 - 943 33 00 60

■ FUTBOLA - GORENGOA

Ligako azken partidua

GORENGO taldeak gaur jokatuko du ligako azken partidua Trintxerperen kontra. Klasifikazioari begira Hernanik ez du ezer jokatzen: 12garren dijua 47 puntuarekin, eta gehienez postu baten gora-behera izango du. Trintxerpe, berriz, 10garren dijua, 52 puntuarekin. Partidua, Molinao zeiaian, arratsaldeko 15:45etan. □

■ ERRUGBIA

Kadeteek Espainiako Txapelketa

Hernaniko ekipo kadeteek Espainiako Txapelketa jokatuko du gaur eta bihar Tarazonan, Santboiana, Valentzia eta Quesos VRACrekin batera. □

■ PELOTA

Herriarteko gaur

HERNANIK Herriarteko kanporaketa jokatuko du Anoetaren kontra, 18:00etik aurrera. Anoetan, 3-0 irabazi zuten hernaniarrak. Bestalde, bihar, Paleta gomako partiduak jokatuko dira, 11:00etan hasita: Mirari Etxegia-Maider Mendizabal/Itxaso Urkizu-Maite Ruiz, eta Eli Lasu-Nagore Arozena/Goiatz Manzisidor-Amaia Martinez. Jokatuko duten hiru pelotari Munduko txapeldun izanak dira.

Azkenik, gaur goizeko 10:00etik aurrera neska benjamin, alebin eta infantilak jokatuko duten frontoian. □

Kronika txapelketa azken fasean

KRONIKA Eskupelota Txapelketa azken fasean sartu da eta gaur hasiko dira partiduak. Hamairu bikoteko ligatik sei sailkatu dira aurrerako: Garmendia-Zabala, Zelaia-Urdangarin, Legarreta-Ezeiza, Tutu-Iñaki, Huizi-Villar eta Pablo-Fernando. Ekainaren 21ean bukatuko da fasea. □

Bildu Hernanik "lanean segitzera" dei egin zuen hauteskunde aurreko azken ekitaldian

■ Plataformaren aldeko babesea "alperrikakoa" ez dela izango esan zuten ■ Bildu Hernanik interneten jarri ditu papeletak eskuragarri: www.bilduhernani.org

BILDU Hernanik hauteskunde aurreko azken ekitaldia egin zuen ostegunean Plaza Berriñ. Hernaniko hainbat taldeko jendeak parte hartu zuen ekitaldian Bildu Hernaniko zerrandakideak eta Joseba Permach Ezker Abertzaleko buruzagiarekin batean.

Permachek ilegalizazio prozesua Ezker Abertzaleak min egiten dielako etorri dela esan zuen. Hogeita bost urtean Ezker Abertzaleak bere bideari eutsi diola esan zuen eta ez dutela "proiektu autonomista honen barruan" sartu. Frantzia eta Espainiak Euskal Herriaren gain "egiten duten errepresioa" beren proiektuak krisi egoera ba-



Plataformakideak Bildu Hernaniko papeletak eskuetan dituztela.

tean daudelako dela esan zuen.

Lanerako deia

Bildu Hernaniko arduradunek lanean segiko dutela esan zuten: "Udaletxe barrutik bota gaituztenez kanpotik lan egi-

teko moduak bilatuko ditugu". Bestalde gaurko mobilizazioak deitu dituzte. Goizeko 12:00etan bilkura dago plazan eta 20:00etan manifestazioa *Euskal Herria aurrera putxera-zorik ez lemarekin*. □

Zaharren Egoitzari ISO 9001 kalitate agiria eman diote

■ Imanol Beroiz Ongintzako buruak "EA-EAJren jarrera" salatu du agiriaren berri emateko egindako prentsurrean.

IMANOL Beroiz Ongintzako buruak prentsurreko eman zuen joan den ostegunean. EA-EAJk joan den astean Zaharren Egoitzako gestioa eta kalitateari buruz zabaldutakoa salatu zuen: "EA-EAJ ez da lau urtean Patronatura agertu ere egin eta azken hilabeteetan kanpaina egin eta gezurrezko mezuak zabaltzen ari dira putreak bezala" esan zuen. Imanol Beroizen hitzetan azken urteetan Diputazioak Zaharren Egoitzentzako jarritako modelora inguratzekeo pausu garrantzitsuak eman dira eta "Ongintzako Gerenteak horixe



Beroiz ISO 9001 agiriarekin.

bera nabarmenzen du txostenean. Ez dut ulertzen Diputazioan EA-EAJk pauta batzuk jarri eta herrian betetzen siatzean Hernaniko EA-EAJk nola kontra egiten duen" dio Beroizek.

Beroizek nabarmendu zuen "EA-EAJk dioenaren kontra" Zaharren Egoitzan kalitatea ematen dela eta horren erakusle Europatik emandako ISO 9001:2000 zertifikatua dela. Bukaneko eskerrak eman zizkien Zaharren Egoitzako eta Ongintza Patronatuko langileei "berei eskerrak eman diraleko kalitatea hobetzeko pasoak". □

KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	N o n	N o i z	PELOTA	Taldeak	N o n	N o i z
Goren.	Trintxerpe-Hernani	M o l hao	Gaur,15:45	Kadete	A ipar-te-G ono bategiA noeta	K i o degia	Gaur,18:00
Emakum .	Bukatuta			Juben ilak	A mietta-O tegiA noeta	K i o degia	Gaur,18:00
1. Erre.j.	Bukatuta			N agusiak	Enre zenea-M endizabalA noeta	K i o degia	Gaur,18:00
Gaz.O.h.	Euskalbuna-Hernani	A llumale	Gaur,16:30		H erriar teko a		
Kad.O.h.	Hernani-Reala	Zubipe	B har,12:00	A lebinak	Etxe gia-M endizabal/Urkizu-Ruiz	K i o degia	B har,11:00
Kad.2.	Hernani-Ondizia	Zubipe	B har,10:15	A lebinak	Las a-A rozena-M anizidor-M artinez	K i o degia	B har,11:00
Haur.O.h.	Bukatuta				Errem ontea - G alarreta		
ERRUGBIA							
Alebina	Hernani-Ondizia	Landare	Gaur,10:30	1) Zalakain-A ginezabal/Juaristi-Umita	G alarreta	G aur,16:00	
Kadetea	Estatuko txapeketa	Tarazona	G aurenta bhar	2) Zeberio II-J.Etxeberria/Lizaso-Eizagirre	G alarreta	G aur,16:00	
Jubenila	Hernani-Ondizia	A sti	G aur,17:30	3) Elizalde-Etxabe/B itoria-B itoria-A ipuma	G alarreta	G aur,16:00	
N agusiak	Batzan-Hernani	Lekaroz	G aur,16:30	4) Irunbe-A ipum/B eixaztua-Uretabizkaia II	G alarreta	G aur,16:00	

HERNANIKO futboleko nesken taldeak, eskerrak eman nahi dizkizu, izandako pazientzia eta egindako lanagatik.

Eskerrik asko Markos

HITZ BITAN

✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Proposamenen aurkezpena gaur. Molotoff irratia eztabaidea prozesuan da aurrerantzean zein bidetik jo erabakitzeko. Bost proposamen izandu dira eta gaur aurkeztuko dituzte, AEKKo lokalean, goizeko 11:00etan. Azken erabakia maiatzaren 31ko mintegian hartuko da, baina, aldez aurretik jendeari ideia guztien berri eman nahi diete. □

I. URTEBETETZEA

Juanita Setien Kortajarena

2002ko maiatzaren 22an hil zen



Juanitaren senitartekoek, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza **bihar, igande, maiatzak 25**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parrokan.

Hernanin 2003ko maiatzaren 24an.

I. URTEBETETZEA

Dionisio Usarraga Zapirain

2002ko maiatzaren 5ean hil zen



Dionisioren senitartekoek, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Urtebetetze meza **bihar, igande, maiatzak 25**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parrokan.

Hernanin 2003ko maiatzaren 24an.

I. URTEBETETZEA

Eusebio Rekondo Kortadi

2002ko maiatzaren 4an hil zen



Emaztea: Paqui Sanz; seme-alabak: Arantza eta Txemari Aranburu, Xoan eta Edurne Urkia, Iñaki eta Mari Carmen Izagirre, Nekane eta Peio Ruiz, Ixiar, Alazne eta Xabier Otaegi; arreba: Maritxu; ezkon anaia: Sabino Leiza, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahadeek, urtebetetze mezara gonbidatzen zaituzte.

Urtebetetze meza **bihar, igande, maiatzak 25**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailea parrokan.

Hernanin 2003ko maiatzaren 24an.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
943 554892
- Gauetza: Elizondo
Andoain. Zumea 30
943 592629

IRAGARKI MERKEAK

Tabernako sukaldean lan egiteko pertsona bat behar dugu. Interesatuek deitu goizez telefono honetara: **943 55 67 06**

Bi bizikleta salgai. Umearentzat (5-8 urte) eta gaztearentzat (16 urte) aproposak. Interesatuek deitu telefono honetara: **629 44 37 58**

AUKERA BERRIA
ILEAPAINDEGIA
Arantxa eta Ixiar Larrañaga
Nafar Kalea 14
Hernanin 20.120
943 33 24 41



Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak

GAUR 16:00ETATIK AURRERA

ERREMONTZE JAIALDIA:

1. partidua: Zalakain - Agirrezabala / Juaristi - Urrutia
2. partidua: Zeberio II - J.Etxeberria / Lizaso - Eizagirre
3. partidua: Elizalde - Etxabe / Bitoria - Aizpuru
4. partidua: Iturralde - Auzmendi / Bereziartua - Urretabizkaia II